


SEGURA

HIRI ANTOLAMENDURAKO PLAN OROKORRA

HERRITARREK PARTE-HARTZEKO PROGRAMA

2026ko OTSAILA



SEGURA DE LA SIERRA



HIRIGRAMA
Hirigintza eta arkitektura
KOOP

HIRI ANTOLAMENDURAKO PLAN OROKORRA

Herritarrek parte hartzeko programa

Segura, 2026ko otsaila

ZUZENDARITZA

Hirigintza arkitektoak:

Haritz Iparraguirre Yarza

Zalao Las Hayas Madariaga

Martin Ferran Zubillaga

Ray Mendiburu Abad

IDAZLANA

Hirigintza arkitektoak



HIRIGRAMA

Hirigintzako letradua: Maribi Joaristi Olariaga

LANKIDETZAK

Ingurumen-taldea: GEOTECH

UDALAREN IKUSKARITZA TEKNIKOA ETA INFORMAZIOA:

Udal arkitekto tekniko arduraduna: Juan Manuel Saez Iturrioz

SUSTAPENA



SEGURAKO UDALA

Segurako udala

I.	HERRITARREK PARTE HARTZEKO PROGRAMA	1
I.1.	LEGE-ESPARRUA.....	1
I.2.	PROZESUAREN HELBURU OROKORRAK	2
I.3.	ESTRATEGIAK	3
I.4.	ZEHARKAKOTASUNA: GENEROA ETA PARTE-HARTZEA	4
I.5.	PARTE HARTZEKO MEKANISMOAK	4
I.5.1	HERRITARREK PARTE HARTZEKO GIDA.....	5
I.5.2	SAIO IREKIAK	5
I.5.3	DIBULGAZIO-MATERIALA.....	7
I.5.4	GENERO IKUSPEGIA	7

I. HERRITARREK PARTE HARTZEKO PROGRAMA

I.1. LEGE-ESPARRUA

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 84.4 eta 108. artikulua betez, Planaren aldaketa egiteko, izapidetzeko eta onartzeko prozesuan jarraitu beharreko *Herritarren Partaidetzarako Programa* idatzi da.

Aipatutako 2/2006 Legeak, 84.4 artikuluan, hau xedatzen du: dagokion hirigintza-plana edo tresna egiteko erabakian edo, hala badagokio, izapideak egiteko eskumena duen administrazioan aurkeztutakoa onartzeko izapidean zehaztuko dira administrazio-koordinazioa eta plan edo tresna hori lantzeko, izapidetzeko eta onartzeko prozesuan herritarrek parte hartzeko programa sustatzeko behar diren neurriak eta jarduketak.

Era berean, 2/2006 Lege horren 108. artikulua herritarren parte-hartzerako programa arautzen du, eta ezartzen du egiturazko antolamenduko edozein figura formulatzen, aldatzen edo berrikusten hasteko udal-erabakiarekin batera herritarrek parte hartzeko programa bat egin beharko

dela, eta, programa horretan, udalerraren ezaugarrien arabera, herritarrek eta elkarteek hura egiteko prozesuan parte hartzeko eskubidea izateko behar diren helburuak, estrategiak eta mekanismoak ezarriko direla.

Bestalde, martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuak —3. artikuluan, lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituen— herritarren parte-hartzerako programaren gutxiengo edukiak adierazten ditu, eta aipatutako artikuluan adierazten den bezala argitaratu beharko dira eduki horiek.

Gainera, HPP hau aurkeztuz, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legean partaidetzako deliberazio-akordioei buruz xedatutakoa jasotzen da 76. artikuluan. Horrela, HPP honetan azaldutako edukien bidez erantzuteaz gain, parte-hartzaileen gehieneko kopurua eta horien izaera zehaztea proposatzen da. Aztertzen ari garen kasu honetan ez litzateke ezarriko gehieneko zk. ezta aurretiko baldintzarik ere, Segurako udalerriko herritar guztiei eskainitako prozesua izanik.

I.2. PROZESUAREN HELBURU OROKORRAK

Prozesu parte-hartzaile orok "ahalik eta kalitaterik handienarekin" parte hartzea izan behar du helburu, eta hura diseinatzerakoan, prozesuaren "osotasunaz", "ordezkagarritasunaz" eta "moldagarritasunaz" arduratu behar du.

Hiru helburu orokor horiek lortu nahi ditugu ahalik eta kalitate handieneko parte-hartze prozesua diseinatzeko.

- Prozesuaren OSOTASUNA honela ulertzen da: ezin izango da banatu jarduera tekniko eta herritarren ekarpenak egiten dituen taldea, Planaren baterako definizioa eta interdependentzia tekniko-parte-hartzailea bilatuz.
- ORDEZKAGARRITASUNAK komunitate osoa prozesuan islatuko dela esan nahi du, eta, horrela, baterako erabakiak hartzea legitimatu ahal izango du.

Ordezkarritasuna alde batera utzita, proposamen hau idazten duen talde tekniko eta humanoak Plan Orokorraren aldaketa idazteko prozesua hirigintza inklusibo baten sinismen eta promoziotik abiatzea proposatzen du, hirigintza horretan sartzen direlarik tradizioz hirigintzan gutxien kontuan hartutako biztanleria-sektoreak (batez ere produkzio-beharrak asetzen dituztenak), hala nola emakumeak, haurrak, hirugarren adina, eta ekintza-premia eta ahalmena eta agentzia estrategikoak dituzten taldeak, Segurako eguneroko bizitza, bere balioen gizarte- eta kultura-ugalketa eta horiekin bat datorren ekonomia behatu, ikasi eta sustatzeko hirigintzara zuzenduak.

- Herriaren beraren gizarte-, komunikazio- eta partaidetza-egiturara EGOKITZEA funtsezkoa izango da prozesu inbaditzaile eta inposatua ez sustatzeko, baizik eta herriaren beharretara eta errealitatera egokitzeko.

I.3. ESTRATEGIAK

Honako ESTRATEGIA hauek (lan-talde honek proposatutakoak) dira proposamen hau egitura-tzen dutenak, baina, edonola ere, prozesua hasi ondoren berriz definituko dira, kontrastatzeko, aldatzeko, handitzeko edo berresteko.

Printzipio horiek azalduko ditugun hiru planekin (PARTAIDETZA-PLANA, KOMUNIKAZIO-PLANA eta EBALUAZIO-PLANA) duten erlazioak zehaztuko du printzipio horiek nola aplikatuko diren.

Printzipio bakoitzean, Plan bakoitza diseinatzera, estrategiak idaztera edo horiek garatzeko zenbait ekintza egitera zuzendutako helburu batzuk sartzen dira. Nolanahi ere, horiek kontrastatzea, aldatzea eta matrizearen bidez zabaltzea garrantzitsua izango da.

- **E01: DEFINIZIO BATERATUA**

Herritarrak Planaren idazketaren baterako definizioan INTEGRATZEA. Ulertu behar da plana prozesuaren ezinbesteko zatia dela, hura osatzen eta elikatzen duela, eta haien ekarpenak ez direla iradokizun hutsak, baizik eta planaren alderdi betearazleak direla.

Auzotarrei elkarrizketa- eta eztabaida-gune bat EGITURATZEA, metodologia bat ezartzeko, non herritarren ekarpenak nahitaezkoak iza ngo diren, eta herritarrek elkarrekin adostutako erabakiak bateratzeko inpo-gune bat.

- **E02: INKLUSIOA**

Hirigintza iraunkorra irudikatzeko prozesu bat DESKRIBATZEA, genero-ikuspegitik, eta, lan produktiboaz gain, benetako gizarte jasangarri baten erreproduzioarekin lotutako lana eta zereginak ere kontuan hartzea, hau da, pertsonak artatzeko eguneroko premiak.

Prozesuan interes pertsonal eta komuneren arteko harremana eta aldeak IKUSARATZEA.

Gizartean adostasun zabala duten proposamenak LORTZEA, prozesuaren fase guztietan parte hartuz, bertan ematen diren erabaki guztiak eztabaidatuz, alderatuz eta berretsiz eta Segurako garapen-eredua zehaztuz.

Herritarrak prozesuan parte har dezaten MOBILIZATZEA, dokumentu hau lantzetik haratago dagoen interes komunaz jabetuz.

Genero-inpaktuaren azterketa, ebaluazioa eta txostenaren markoaren beraren neurri zuzentzaileak GAINDITZEA, Segurako emakumeak erreferente bereziki estrategikotzat hartuta, eta genero-ikuspegia prozesu osoaren hasieratik txertatzea, ez dokumentu paralelo soil gisa.

- **E03: ETENGABEKO KOMUNIKAZIOA**

Programatzen diren jarduera eta bilera guztiei eta planaren edukiei buruzko informazio etengabea ESKAINTZEA, hizkera erraza, ulergarria eta ez-sexista erabiliz, fase bakoitzean sortutako dokumentu guztiak ulertzen laguntzeko.

Segurako ezagutzan SAKONTZEA, hausnarketarako espazio bat sortuz, non parte-hartzaileek egoera jakin baten arrazoiak eta zergatiak pentsatu eta ebaluatu ahal izango dituzten, baita udalerrriaren ezaugarriekin duten lotura ere.

Informazioa eta hizkuntza teknikoa eskura JARTZEA, eta lan zehatza egitea eskura daitezkeen estrategia tekniko-juridikoak definitzeko eta adierazteko, zehaztutako helburuak eta egingarritasuna lortzeko.

- **E04: PROZESU BIZIA ETA ERROTZEA**

Prozesua EGOKITZEA, jardun-eremu berriak barne har ditzakeelarik, hala nola, herriaren berezko elkarte, kolektibo eta dinamikak, horiek guztiak beharrezkoak baitira etorkizunean parte hartzeko dinamikien jarraipenerako eta errotzerako.

- **E05: ITZULTZEA ETA EBALUATZEA**

Prozesuan zehar, harremanak FINKATZEA, fase bakoitzeko emaitzak, lorpenak eta ondorioak itzuliz, Komunikazio Planean ezarritako komunikabideen bidez eta ondorengo ekintza bakoitzean.

Prozesu osoa EBALUATZEA, ekintza bakoitza nola egin den ondorioztatuz eta erregistratuz, Planean ezarritako ekintzak birplanteatzeko.

- **E06: EUSKARA**

Udalerriko egoera soziolinguistikoari ERANTZUTEA, prozesuaren adierazgarritasunerako eta bi hizkuntza ofizialen erabilera normalizaturako.

I.4. ZEHARKAKOTASUNA: GENEROA ETA PARTE-HARTZEA

Planean genero-ikuspegia txertatzeko prozesuak integrala eta zeharkakoa izan behar du. Generoaren Eragina Ebaluatzeko dokumentua egiteaz gain, aztertzen ari garen lan-eremua eta planteak daitezkeen irtenbide orokorrak aztertzeak hirigintzako eta antolamenduko genero-harremanak berrikustea eta alderatzea ekarri behar du.

Beraz, herritarrek parte hartzeko prozesuaren bidez dokumentua idazteko prozesuan genero-ikuspegia sartzea izango da gako metodologikoetako bat.

Orokortu gabeko subjektu bati, askotarikoari eta komunitatekoari, parte hartzeko deia egitea parte-hartze publikoaren forma eta edukiak eraikitzearen bidez ere lortzen da.

I.5. PARTE HARTZEKO MEKANISMOAK

EAEko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen printzipio orokorren artean dago herritarrek plangintza-lan horietan parte hartzeko duten eskubidea bermatzea, herritarrek parte hartzeko programaren bitartez.

Segurako Hiri Antolamenduko Plan Orokorra proposatu, idatzi eta onartzeko herritarrek parte hartu ahal izateko mekanismoak biltzen ditu.

I.5.1 HERRITARREK PARTE HARTZEKO GIDA

Lehenik eta behin, Lurralde-Antolamenduko Planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituen martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuaren 3.2 artikuluan jasotzen den bezala, herritarrek parte hartzeko prozesuaren jarraibideak eta edukia deskribatuko dituen partaidetza-gida bat egingo da.

Dokumentu horrek, gainera, parte hartzeko prozesuaren abiapuntu izango diren edukien laburpena jasoko du. Hau da, eremuaren beharra, xedea eta deskribapena, eta hirigintzako antolamendua aldatuko den baldintzatzaile nagusiak.

Segurako Udalaren irizpidearen arabera, herritarrek parte hartzeko prozesua hasi baino lehen argitaratuko edo banatuko da gida, lehenengo saio irekiaren deialdiarekin batera, eta bertan prozesua eta etorkizunekoak deskribatuko dira.

I.5.2 SAIOAK

UDALERRIAREN DIAGNOSIA HERRITARREKIN BATERA

Talde idazleak ikuspuntu objektibotik idazten duen bitartean (demografia, arlo sozio-ekonomikoa, etxebizitza, mugikortasuna, ingurumena, eta gainerako gai sektorialeiei buruzko txostenak idatziz), herritarrentzako saioak prestatu eta burutuko dira. Parte hartze hau biztanleria orokorrari zuzentzeaz gain, eta hirigintzak alboratu ohi izan dituen sektoreei ahotsa emateko asmoarekin, emakume eta hurrekin eginiko saioak ere antolatuko dira.

- Mekanismoak:
 - * Aurkezpen publikoa
 - * Diagnostikorako saio irekia, umeekin saioa eta emakumeekin saio
 - * Inkestak

PLANEAMENDUAREN AURRERAPENAREN ETA HASIERAKO DOKUMENTU ESTRATEGIKOAREN IDAZKETA

Diagnostiko partekatuen prozesua amaitu ostean —udaleko talde erredaktoreak egindako azterketen eta herritarren partaidetzaren bidez jasotako ekarpen kualitatiboen uztarketaren emaitza dena—, fase propositiboa irekiko da, Udaleko talde tekniko eta politikoeekin elkarlanean.

Etap honetan, lan-tailer espezifiko bat burutuko da, non bi lan-lerro nagusi jorratuko diren, modu bereizi baina osagarrian: batetik, plangintzaren garapena egituratuko duten helburu estrategikoak eta irizpide gidariak zehaztea; eta bestetik, Aurrerapen Dokumentuan txertatu beharreko proposamenen formulazioa.

- Mekanismoak:
 - * Udal talde tekniko eta politikoearekin berariazko saioa.

PLANEAMENDUAREN AURRERAPENA ETA HASIERAKO DOKUMENTU ESTRATEGIKOA JENDAURREAN JARTZEA

Udalak Foru Aldundiari bidali beharko dio Ingurumen Ebaluazio Estrategikoa (IEE) abiarazteko eskaera formala, Planeamenduaren Aurrerapenarekin eta Hasierako Dokumentu Estrategikoarekin (HDE) batera, jendaurreko erakusketa hasi aurretik. Ingurumen-izapideei dagokienez, ingurumen-organo eskudunak HDE dokumentua izapidetuko du, eta, prozedura horren baitan, kontsulta egingo die eragindako administrazio publikoei eta interesa duten norbanako zein erakundei. Herritar orok bere iritzia eman ahal izan dezan, dokumentua jendaurrean aurkeztuko da, zalantzak argitu eta edukiaren gaineko ulermena errazteko helburuarekin.

- Mekanismoak:
 - * Kontsulta administrazioei
 - * Dokumentuen aurkezpen publikoa.
 - * Jendaurrean agertzea: Gutxieneko epea 2 hilabetekoa izango da, azken argitalpenetik aurrera zenbatzen hasita.

HASIERAKO ONARPENERAKO DOKUMENTUA IDAZTEKO PROZESUA

Fase honen abiapuntuan, Planeamenduaren Aurrerapenak jasotzen dituen Helburu eta Irizpide proposamena oinarri hartuta, antolamendu-alternatibak aztertuko eta baloratuko dira herritarrekin lankidetzan. Prozesu horretan kontuan hartuko dira, hala badagokio, Ingurumen Organoak Irismen Dokumentuan ezarritako baldintzak eta jasotako iradokizunak ere bai.

Herritarren lehentasunak dokumentu batean bildu ostean, udaleko talde tekniko eta politikoarekin lan-dinamika bat garatuko da behin betiko helburu, irizpide eta proposamenak aukeratzeko helburuarekin.

Prozesu horretan adostutako helburu, irizpide eta irtenbide orokorrak Udalbatzak Osoko Bilkuran onartuko ditu, eta hortan oinarrituko da talde idazlea Hasierako Onarpenerako Dokumentua idazteko.

- Mekanismoak:
 - * Herritarrekin saio ireki bat.
 - * Udal talde tekniko eta politikoarekin berariazko saioa.

HASIERAKO ONARPENERAKO DOKUMENTUA JENDAURREAN JARTZEA

Plan Orokorraren egitasmoa hasieran onetsi eta gero, Udalak jendaurreko informazio epea irekiko du, horretarako hasieran onesteari buruzko erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta gehien saltzen den egunkarietako batean edo gehiagotan argitaratuko da. Gutxieneko epea berrogeita bost egunekoa izango da, azken argitalpenetik aurrera zenbatzen hasita.

Herritarrei hasierako onespeneraren agiria jendaurrean agertzeko epean parte hartzeko eskubidea erabiltzeko aukera emateko honako bitartekoak ezarriko dira:

- Mekanismoak:

- * Kontsulta administrazio sektoriale
- * Hasieran onartutako dokumentua aurkeztea
- * Jendaurrean jartzea: 45 eguneko epean alegazioak aurkezteko.

PLAN OROKORRAREN EGITASMOAREN BEHIN-BEHINEKO ETA BEHIN BETIKO ONARPENAK

Herritarrek parte hartzeko prozesua bukatu ondoren, eta jendaurreko informazio epean egingadako alegazioak aztertuta, Udalak behin-behinean onetsiko du agiria (beharrezko aldaketekin, hala badagokio).

Ondoren, Udalak erabaki hori Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeari bidaliko dio, horrek gaiari buruzko txosten loteslea egin dezan.

Behin betiko onespeneraren agiria edo, hala badagokio, Plan Orokorren egitasmoan egindako aldaketak bilduko dituen testu bateratua, Gipuzkoako aldizkari ofizialean eta gehien saltzen den egunkarietako batean argitaratuko da, eta horren kopia bat Foru Aldundiko hirigintza plangintzako administrazio erregistrora bidaliko da, aldaketa zehatzari buruzko agiriak edozeinek kontsultatu ahal izango dituela bermatzeko

- Mekanismoak:
 - * EAELABi txostena eskatzea.

I.5.3 DIBULGAZIO-MATERIALA

Dibulgazio-materiala udalerrriaren berezko jardunbideei eta mekanismoei lotuta egongo da, besteak beste, sare sozialak eta kanalak zabalkunde-talde gisa.

Segurako Udala arduratuko da komunikazio-plan bat egiteaz. Plan horretan sartuko dira, batetik, saio irekien deialdiak eraginkorrak izan daitezen lortzeko behar den publizitatea, eta, bestetik, agirien zabalkundea eta ulermena errazteko legez eskatzen den dibulgazio-materiala.

I.5.4 GENERO IKUSPEGIA

Partaidetza-prozesuan zehar, genero-ikuspegia txertatuko da, eta berdintasunerako partaidetza-mekanismoak ahalbidetuko dira, hala nola, zaintzak eta abar. Horrela, herritarren parte-hartze hori, oro har herritarrei zuzentzeaz gain, emakumeen eta haurren ahalduntzearen bidez ere antolatuko da, hirigintzak gehien diskriminatzen dituen sektoreei ahotsa emateko.

Donostia, 2026ko otsailaren 04a



HIRIGRAMA
Hirigintza eta arkitektura
KOOP

Hirigrama Koop. Elk. Txikia